

Egoeraren Azterketa



Egoera sozial eta ekonomikoaren azterketa

- ✓ **Ekonomiaren aro berria**
- ✓ **Nafarroa 2012 Planak eta EAEko ekonomia suspertzeko erakundeen arteko akordioak enpresariei baino ez diete mesede egiten**
- ✓ **Gizarte-gabeziak hain handiak izan arren, superabita hazi egin da EAEn**

Hego Euskal Herriko (*) lan eta ekonomi egoeraren adierazleak

ADIERAZLEA	NEURRIA	AZKEN DATUA	2008	12 HILE LEHEN.	2007 BUK.
ENPLEGUA ETA LANGABEZIA (16-65 URTE BITARTEKO BIZTANLERIA)					
JARDUERA TASA	%	08 I	73,4	73,3	73,5
"27-EBn	%	07 IV	70,6	70,3	70,6
LANEAN DAGOEN BIZTANLERIA	KOPURUA	08 I	1.276.900	1.262.700	1.282.300
SOLDATAPEKO BIZTANLERIA	KOPURUA	08 I	1.036.600	1.015.000	1.035.900
ALDI BATERAKO TASA	%	08 I	28,1	27,8	28,2
"27-EBn	%	07 IV	14,5	14,6	14,5
BIZTANLERIA LANGABETUA	KOPURUA	08 I	77.700	85.600	73.700
LANGABEZI TASA	%	08 I	5,7	6,3	5,4
"27-EBn	%	07 IV	6,9	7,9	6,9
GAZTEEN LANGABEZI-TASA	%	08 I	15,8	14,9	15,2
"27-EBn	%	07 IV	14,8	16,7	14,8
EMAKUMEEN LANGABEZI-TASA	%	08 I	7,2	8,4	7,0
"27-EBn	%	07 IV	7,7	8,7	7,7
SINATURIKO KONTRATUAK	KOPURUA	08 URT-EKA	542.121	548.431	1.121.729
MUGAGABEKO KONTRATUAK	KOPURUA	08 URT-EKA	54.105	55.109	104.633
ENPLEGU ERREGULAZIOA					
ONARTURIKO FITXAK	KOPURUA	08 URT-API	126	205	509
ERAGINDAKO LANGILEAK	KOPURUA	08 URT-API	1.772	3.728	8.634
LAN ISTRIPUAK					
BAJADUN LANGILEAK	KOPURUA	08 URT-MAR	15.561	18.508	62.039
HILDAKOAK	KOPURUA	08 URT-MAR	22	37	106
ESKAINZA ETA ESKARIA					
INDUSTRI PRODUKZIOA EAEn	% ALD.	08 URT-MAR	0,6	5,2	2,8
INDUSTRI JARDUERA NAFARROAn	% ALD.	08 URT-MAR	5,4	2,0	2,0
BPGa EAEn	% ALD.	08 I	3,1	4,1	3,6
BPGa NAFARROAn	% ALD.	08 I	3,0	4,2	3,4
BPGa ESPAINIAR ESTATUAN	% ALD.	08 I	2,7	4,1	3,5
BPGa 27-EBn	% ALD.	08 I	2,4	3,3	2,5
PREZIOAK					
URTEARTEKO KPIa ESPAINIAR ESTATUAN	%	08 EKA	5,0	2,4	4,2
" 27-EBn	%	08 MAI	4,0	2,1	3,2
* Adierazleak Hego Euskal Herriari dagozkio. Bestelako kasuan lurraldea zehaztuko da.					
Iturriak: Eustat, Nafarroako Estatistika Erakundea (NEE), Eurostat, OCDE, Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales, Osalan, INSL, INEM, EIN.					
2008/07/11an eguneraturiko informazioarekin			110. zbk. Egoeraren Azterketa 2008ko Uztaila		



Aurkibidea

SARRERA	3
EGOERA SOZIAL ETA EKONOMIKOAREN AZTERKETA	4
1. Ekonomiaren hazkunde txikiagoaren arrazoiak: soldatekin zerikusia duen bat ere ez	4
2. Ekonomiaren hazkundeari buruzko datuak.....	4
3. Enpleguan eta erosahalmenean hauteman diren ondorioak	5
4. Egoera ekonomiko berriaren benetako larritasunaren inguruko zalantzak	6
5. Ziklo ekonomiko berriaren erabilera interesatua.....	6
6. Erosahalmena hobetzeko eta gizarte-gastua areagotzeko adinako marjina	7
PUNTAKO GAIAK	9
1. Nafarroa 2012 Planak enpresariei bakarrik egiten die mesede.....	9
2. Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiek ekonomia suspertzeko sinatu duten hitzarmenari buruz ELAk egindako balorazioa (2008ko uztaila)	11
3. EAEko superabitak gora egin du, behar sozialak dauden arren	14

ERABILITAKO SIGLAK

HEH	Hego Euskal Herria
EAE	Euskal Autonomi Erkidegoa
EB	Europako Batasuna
ELGE	Ekonomi, Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea
BPG	Barne Produktu Gordina
KPI	Kontsumorako Prezioen Indizea
BJA	Biztanleria Jardueraren Arabera
BAI	Biztanleria Aktiboaren Inkesta
PII	Produkzio Industrialaren indizea
JII	Jarduera Industrialaren Indizea
Eustat	Euskal Estatistika Institutua
NEE	Nafarroako Estatistika Erakundea
EIN	Estatistika Institutu Nazionala

EGOERAREN AZTERKETA

Sarrera

Egoeraren azterketa honetan, ekonomiaren aro berriaren berezitasunak, zergatiak eta ondorioak, eta instituzioak eta beste erakunde batzuk proposatzen ari diren irtenbideak aztertuko ditugu. Zenbaki honetako Puntako Gaietan, berariaz baloratuko ditugu Nafarroa 2012 Plana eta EAEko Ekonomia suspertzeko hitzarmena. Era berean foru-aldundiek 2007ko ekitaldiaren itxieran izandako superabita aztertuko dugu.

Gizarte eta ekonomia egoeraren azterketa

1. Ekonomiaren hazkunde txikiagoaren arrazoiak: soldatekin zerikusia duen bat ere ez

Munduko ekonomiaren oraingo egoeran, ziurgabetasuna da nagusi. Hona hemen egoera hori eragin duten hiru arrazoiak:


- Finantza-sistemaren funtzionamendua. Nazioartean, hipoteken inguruan egin diren eragiketa ausartegietan dago ekonomiaren aro honen sorburua. Eragiketa horien ondorioz, hainbat banku edo finantza-erakunde krisian daude. Gauzak horrela, erakunde horietako askoren benetako egoera zein den jakiterik ere ez dago, hala AEBetan nola Europar Batasunean eta Espainiako Estatuan.
- Sekula izan den kapital-metaketarik handiena, gehienbat espekulaziorako erabili dena. Finantza-sistemen desarauketa arduragabearen ondorioz, krisiaren eragina mundu osora zabaldu da.
- Eraikuntza-sektorearen krisialdia. Eraikuntza-sektorearen geldiera-sintomak ekonomiaren hazkundera moteldu duten faktorerik garrantzitsuenetako bat dira. Erakuntza-jardueraren zati handi bat espekulazioarekin dago loturik. Eredu horren mugak agerikoak dira, sortu den higiezin-burbuilagatik, alde batetik, eta ez biztanleak, ez baliabide naturalak, ez lurraldea mugarik gabe ezin ustiatu daitezkeelako egiaztapenagatik, bestetik.
- Oinarrizko janarien eta produktu energetikoen garestitze gordina. Prezioen igoerak oinarrizko erosgaiak jotzen ditu. KPIaren gehikuntzaren zati bat bitartekari-katearen mozkinen dagokie, eta aurrez itundurik dago. Igoeraren ondorioz, erosahalten txikieneko biztanleak dira kaltetunak, produktu horien merkatuan parte hartzen duten enpresa banatzaileak eta konpainia handiek etekina ateratzen dutelarik.

Egoera aldatzeko, jakina, beraren zioak zuzendu behar dira lehenik. Eta argi dago, halaber, aipatutako zergatien ez dutela soldatekin zerikusirik.

2. Ekonomiaren hazkunderi buruzko datuak

Goian deskribatutako egoerak ekonomiaren hazkunde txikiagoa ekarri du, eta horren eragina Hego Euskal Herrira ere hedatu da. Era horretan, Nafarroako **Barne Produktu Gordinaren** (BPGaren) hazkundera, termino errealetan (hau da, inflazioaren gaintetik), %3ra heldu da 2008ko lehenengo hiruhilekoan, 2007ko lehenengo hiruhilekoan %4,2koa izanik. EAEn ere, ondorio bera igartzen da, hazkunde-erritimoa %4,1etik %3,1era jaitsi baita hamabi hilabetean.

BPGaren URTEARTEKO GEHIKUNTZA. NAFARROA, EAE, ESPAINIAKO ESTATUA ETA 27-EB (2006-2008)




	2006				2007				2008
	I	II	III	IV	I	II	III	IV	I
NAFARROA	3,7	3,7	3,9	4,1	4,2	4,0	3,8	3,4	3,0
EAE	4,4	4,3	4,2	4,0	4,1	4,1	3,8	3,6	3,1
ESPAINIA. E.	3,7	3,8	3,9	4,0	4,1	4,0	3,8	3,5	2,7
27-EB	2,8	3,2	3,1	3,4	3,3	2,8	2,9	2,5	2,4

Iturria: IEN, INE, Eustat eta Eurostat

Hego Euskal Herrian BPGak izan duen gehikuntza urriagoari buruz (BPGaren 1 puntukoa EAEn, eta 1,2 puntukoa Nafarroan), honako iruzkin hauek egin daitezke:

- Europar Batasuneko batez besteko balioen maila bertsuetan dago (EBko gehikuntza 0,9 puntu urritu da). Espainiako Estatuan, aldiz, jausia nabariagoa izan da (1,4 puntukoa).



- 2008ko lehenengo hiruhilekoan, BPGaren hazkundera areago urritu da HEHn (5 hamarren), Europan baino (hamarren bat besterik ez da), non gutxipena geldiro gertatu zen 2007an zehar.
- Hala eta guztiz ere, aurtengo lehenengo hiruhilekoan, Hego Euskal Herrian gure inguru ekonomikoan baino hazkunde handiagoa izan du BPGak, taulan ageri denez.

Europar Batasunari dagokionez, estatuetako eboluzioen arteko ezberdintasun handiak dira alderdirik deigarriena. Alemanian eta Frantzian, adibidez, BPGak 2007ko azken hiruhilekoan baino gehikuntza handiagoa izan du 2008ko lehenengo hiruhilekoan, Espainiako Estatuan eta beste zenbaitetan jazo denaren alderantziz, hain zuzen ere.

Beraz, datuek erakusten dutenez, ekonomiaren aro berri honen berezitasuna hazkunde txikiagoa bada ere, horren eragina ez da inondik ere berdina leku guztietan.

3. Enpleguan eta erosahalmenean hauteman diren ondorioak

Hego Euskal Herrian, enpleguaren adierazleen bilakaera (enplegu-mailarena, langabeziarena eta behin-behinekotasunarena, alegia) ez da positiboa izan 2008ko lehenengo hiruhilekoan, azken bi urteetako joerari eutsirik. Europar Batasunean ez da hori gertatu, nahiz eta gure ekonomia areago hazi izan den.

Ildo horretan, Hego Euskal Herriko **jarduerata** %73,4koa zen 2008ko martxoaren amaieran, iazko aldi bereko portzentajearen (%73,3) eta 2007aren amaierakoaren (%73,5) oso antzekoa, izan ere.

Lanean dabilen biztanleriak 5.400 pertsonako behaldia izan du aurtengo lehenengo hiruhilekoan. Hiruhileko horren amaierako lanbolumena 1.276.900 lagunekoa zen. Soldatapeko biztanleria (1.036.600), aldiz, 700 lagun gehiagok osatzen zuten hiruhilekoa amaitzean.

Langabeen kopurua, bestalde, hazi egin da, iazko laugarren hiruhilekoaren aldean: 73.700etik 77.700era, zehazki. Datu horrek langabezia-tasan ere badu isla, 2007ko laugarren

hiruhilekoko %5,4tik %5,7ra igo da eta. Dena den, 2007ko lehenengo hiruhilekoarekiko konparazioak datu kontrajarriak ematen ditu, langabezia-tasa eta langabeen kopurua iazko aldi horretakoak baino txikiagoak izan baitira aurtengoan (2007ko aldi horretako langabezia-tasa %6,3koa izan zen, eta langabeak, 85.600).


Behin-behinekotasun tasa, berriz, 2007aren amaierako maila berean dago (%28,2koa 2007aren amaieran eta %28,1koa 2008ko lehenengo hiruhilekoan), eta igo ere egin da, iazko lehenengo hiruhilekoarekin (%27,8) konparatuta. Berez, ikus daiteke aurtengo lehen sei hilabeteetan sinatutako 542.121 kontratuetatik, 54.105 bakarrik direla kontratu mugagabeak.

Oraingoan ere, HEHko behin-behinekotasun tasa Europakoaren bikoitza da ia (EBkoa %14,5koa izan zen 2007ko laugarren hiruhilekoan). Datu horrek agerian uzten du HEHko lanmerkatuko behin-behinekotasuna murrizteko dagoen marjina itzela.

Gainerakoan, **prezioak** nabarmenki garestitzen ari dira. Maiatzeko urtearteko KPIa (azken hamabi hilabeteetan inflazioak izan duen hazkunderaren neurria, alegia) %5,0koa izan da, duela hamairu urtetik hona ekainean izandako altuena, hain zuzen ere. Datu horrek berriz ere erakusten du Espainiako gobernuak 2008ko KPIari buruz aurreikusitako %2a (urtero-urtero aurreikusten den zifra bera) guztiz lortezina dela.

Prezioen igoerak, gainera, diru-sarrera txikienak dituzten familiei egiten die kalte handiena. Horrelako familiak dira, izan ere, oinarrizko ondasunak erosteko, euren dirutik proportzioa handiena gastatu behar dutenak, ondasun horiexen prezioak garestitu baitira gehien.


**KPIaren URTEARTEKO GEHIKUNTZAK (%).
ESPAINIAKO ESTATUA.
1996ko EKAINA - 2008ko EKAINA**



Iturria: INE

Euriborraren bilakaerak aipamen berezia merezi du, marka guztiak hautsi baititu atzera, aurtengo maiatzean %5era heltzean. Hurrengo grafikoan ikusten denez, Euriborra 2,8 puntu hazi da azken 3 urteetan. Era horretan, hipoteka-kredituen zenbatekoak biziki handitzen ari dira, bai eta jende askoren erosahalmena murrizten ere. Kasu honetan ere, diru-sarrera txikiak dituzten pertsonak jasaten dituzte eboluzio horren ondorio latzenak.

**EURIBOR TASA.
2005eko MAIATZA -2008ko MAIATZA**



Iturria: Eurostat

Erreferentziatzat hipoteka ertain bat (170.000 eurokoa) hartuta, honako kalkulu hau egin dezakegu:

- 20 urterako hipotekaren hileko kuota 900 eurotik 1.168 eurora igo da.
- 40 urterako hipotekaren hileko kuota 560 eurotik 875era igo da.

Europako Banku Zentralak diru-politika murriztailea darabil, Erreserba Federalak (AEBetako bere homologoak) ez bezala. Inflazio handia argudio gisa baliatuz, behin eta berriz ari da

interes-tasak igotzen, espekulazioaren aurkako neurriak exijitu beharrean. Hori ez da inflazioa kontrolatzeko bidea, bai, ordea, familien ekonomiak (batez ere proportzio handieneko zorrak egin eta diru-baliabide gutxien dituzten familienak) itotzekoa. Politika horrek, halaber, ondorio ekonomiko kaltegarriak ditu, inbertsio-ari ere eragiten dio eta.

4. Egoera ekonomiko berriaren benetako larritasunaren inguruko zalantzak


Ekonomiari buruzko aurikuspenen konplexutasunak berak eragozten du egoera ekonomiko berriak ekarriko dituen ondorio zehatzak neurteza. Berez, sarritan, oso iragarpen ezberdinak entzuten ditugu aditu deritzen pertsonen ahotik. Horregatik, une honetan maizen egiten den galdera, alegia, oraingo egoerak zer ondorio zehatz ekarriko dituen, zaila da erantzuten.

Lehenengo hiru hileroan zer gertatu den bada-kigu, baina ondoren zer jazoko den ez dago batere argi. Ekonomiaren hazkunde txikiagoaren ondorioen gainean, iritzi kontraerriak daude.

Mezu batzuen eta errealitatearen arteko loturarik ezaren erakusgarri gisa aipa dezakegu Nazioarteko Diru Funtsak berak gorantz berrikusi duela euroaren eremuko hazkunde-aurreikuspena, 2008ari begira: zehazki, 3,5 hamarren gorago ezarri du. Eusko Jaurlaritzak, bestalde, %2,7ko hazkunde aurreikusi du 2008rako, eta euskal Merkataritza Ganberen iragarpenen arabera, %2,5 haziko da ekonomia.

5. Ziklo ekonomiko berriaren erabilera interesatua

Datuak kontuan hartuta, bistan dago azken garaiotan hondamendia aurreikusten ari diren mezu asaldagarriek ezkutuko interesak gordetzen dituztela, oraingo egoeraren aitzakian betiko errezetak berreskuratzeko asmoz. Ildo horretan, erne ibiltzeko moduko proposamenak entzuten ari gara. Espainiako Bankuak, adibidez, ez du denbora galdu, betiko neurriak galdatzeko: soldata-igoera txikiagoak, lan-malgutasun handiagoa, gizarte-gastu murriztagoa, eta abar.



Enpresaburuen antolakundeek defendatzen dituzten jarrera horiek gure administrazioen babesa ere lortzen ari dira dagoeneko, bertako agintariak ere antzeko planteamenduak egiten ari dira eta.

Aldi berean, gainera, Espainiako Estatuak hasiera eman dio "gizarte-elkarrizketari". Horrek aurrera jarraituz gero, berriro egin beharko diegu aurka lan- eta gizarte-eskubideen murrizketa ekarriko duten "akordioei".

Egoera ekonomiko berriaren zama langileen bizkarrera botatzeko asmoa nabari da jokaera horretan, **soldaten "neurritasuna"** ekonomiaren aro berria gainditzeko egin behar dugun ekarpena dela sinestarazi nahi digutelarik.

Horren aurrean, lehenengo eta behin, gogoan izan behar dugu oraingo egoera ez dutela langileriaren gehiegikeriek eragin, benetako arrazoen azalpenean aipatu dugunez. Aitzitik, espekulatuzaileen eta enpresarien diru-goseari egotzi behar zaio orain jazotzen ari denaren erantzukizuna. Espekulazio-tresnak –kontrolrik gabe erabiliak– eta biztanleen oinarritzko premiak asetzeko erabili beharko litzatekeen diruaz aberasteko irrika dira, hain zuzen ere, hazkunde txikiagoaren eragileak.

Alegia, politika neoliberalen aplikazioa bera da oraingo arrazoen **jatorria**. Beraz, abagune berriari jarkitzeko, horrelako politikak alde batera utzi eta aberastasunaren banaketa bidezkoagoa lehenetsi beharko litzateke.

6. Erosahalmena hobetzeko eta gizarte-gastua areagotzeko adinako marjina

Bigarrenik, ez dugu ahaztu behar ekonomian marjina handia dagoela. Ekonomia oparo hazi da azken urteetan; berez, **hazten jarraitzen du**, termino errealetan.

Horrez gain, gogoratu behar da urteotan aberastasuna ere asko handitu dela, kapital-metaketa itzela egon dela eta **errentaren banaketak** okerrera egin duela. Lan-errentei aberastasunean dagokien pisua urritu egin da, enpresarien errenten eta kapital-errenten mesedetan. EAEn, zehazki, lan-errentak BPGaren %54,7tik

%48,3ra gutxitu dira, 1993 eta 2006 artean, eta Nafarroan, %47,0tik %44,7ra igaro da 2000tik 2007ra bitarte. Hortaz, egon badago lan-erren-tei berez dagokien aberastasun-zatia handitze-ko aukera.

Ildo beretik aipatu behar da ekonomiaren aro berriaren inguruan alarma pizten dabiltzanak beste inor baino erosoago ari dira hazkunde txikiagoaren ondorioak eramaten. Duela gutxi argitaratutako datuen arabera, Ibex 35ean kotizatzen duten enpresen **mozkinak %15 hazi dira** 2008ko lehenengo hiruhilekoan.

Beraz, behar-beharrezkoa da langileriaren aldeko neurriak hartzea, abagune ekonomiko berriaren ondorio kaltegarriak berak jasaten dituzenez gero. Neurriok soldatei aberastasunean dagokien pisua berreskuratzeko eta gizarte-gastu handiagoa egiteko bermea lirateke.

Hori dela eta, **negoziazio kolektiboari** begira, funtsezkoa da honako helburu hauek lortzeko jardutea:


- KPIaren gaineko soldata-igoerak. Erreferentziako indizea aurreko urteko KPIak izan behar du, prezioen igoerari buruzko aurreikuspena barik.
- Lanaren behin-behinekotasunaren aurkako neurriak, arazoaren alderdi guztiei erreparaturik.
- Lanaldia laburtzea enplegua sortzeko bitarteko gisa balioestea.

Soldata-errentak handitzeak nabarmenki hobetuko luke ekonomiaren egoera, barne-kontsumoa sustatzearen ondorioz.

Bestalde, **gizarte-gastu handiagoa** egin behar da ezinbestez. Ondorioztapen horretara garrantzian lehenengo arrazoia hainbat arlotan dauden gabeziak dira –gizarte-zerbitzuak, 0-3 urtekoen tartea, osasuna, etxebizitza,...–, horrelakoen estaldurari dagokionez Europar Batasuneko azken tokian gaude eta. Bigarren arrazoia gizarte-gastua areagotuz sortzen den aberastasun handiagoa eta eratzen den enplegu egonkor eta jasangarria dira, ongizatearen hobekuntzaz batera.

Amaitzeko, ekar dezagun gogora gure egoera ekonomikoa hobetuko badugu, gure oinarria ezin dela soldata-kostu txikiak eta gizarte-babesgabetasuna darabiltzan eredia izan. Aitzitik, ikerketa, garapena, berrikuntza eta sektore espezializatuetako inbertsioa dira, besteak beste, nabarmendu eta jorratu beharreko alderdiak.





1

Nafarroa 2012 Plana

Laburpena

Nafarroa 2012 planaren lehentasunezko helburua "2008-2011 aldirako aurreikusten den balizko dezelerazio ekonomikoa moteltzea da".

Nafarroa 2012 plana Nafarroako Gobernuak eta PSNk sinatu zuten, CENen, CCOOren eta UGTren babesaz.

Planak 4.508,9 milioi euroko inbertsio publikoa eragingo du, eta Nafarroako Gobernuak eta bertako Enpresa Sektore Publikoak garatuko dute, Nafarroaren eta Estatuaren arteko lankidetzaz ez ezik. Era berean, Nafarroako Toki Erakundeek 440,5 milioi euroko inbertsio gehigarria garatzea aurreikusten da.

Ondoren xehetasunez azaltzen denez, honako bi atal hauek bereizten dira planean: finantzaketa-iturriak eta lehentasunezko jarduketak.

• Finantzaketa-iturriak

	Milioi euroak	%
Nafarroako 2008-2011rako		
Aurrekontu Orokorrak	1.144,0	25,9
Aurreko ekitaldietan metatutako superabita	343,6	7,8
Sozietate Publikoak:		
– Kapital-transferentziak	124,3	34,0
– Autofinantzaketa	627,4	34,0
– Besteren finantzaketa	751,1	34,0
Emakida	72,3	1,6
Estatuarekiko hitzarmenak	56,0	1,3
Beste iturri batzuk	262,2	5,9
Estatuarekin baterako inbertsioa	595,3	13,5
Itzalpeko bidesaria	439,7	10,0
GUZTIRA	4.415,9	100,0

Goian aipatutako 4.508,9 milioi euroetara heltzeko behar diren gainerako finantzaketa-iturriak programatzeke dauden inbertsioen menpe uzten dira.

• Lehentasunezko jarduketak

	Milioi euroak	%	Inbertsio nabarmengarriak
Gaitasun urrikoentzako eta adin txiki. zuzkidurak	46,2	1,3	Adin. egoitzak eta gaitasun urrikoent. zentroak
Ospitaleak eta laguntza-zentroak	168,3	4,7	Ospitaleak handitzea eta birmoldatzea
Hezkuntza	89,4	2,5	Kontserb., instit. handitzea eta berriak eratzea
Teknologiako eta ikerketa aplikaturako zentroak	134,8	3,8	IKTen hiria eta Tracasaren eraikin nagusia
Kultura eta aisia	148,5	4,2	Nafarroako Kirol Pabilioia
Ondare historiko-artistikoa berreskuratzea	50,5	1,4	Erromesen aterpetxea
Administrazio-eraikinak	95,3	2,7	Epaitegi berriak
Etxebizitza	259,0	7,3	Babes Ofizialeko 15.000 etxebizitza eraikitzea
3.300.000 metro karratu industrialde	104,0	2,9	Baldizarbeko industrialdea
Ingurumena eta lurraldearen antolamendua	37,4	1,0	Ibaien saneamendu-plana eta Pirinioetako Plana
Nekazaritza-industriak eta sail ureztatuak	782,8	22,0	Nafarroako Ubidea
Errepideen sarea	601,2	16,9	
Abiadura Handiko Trena	831,2	23,4	
Banaketako eremu logistikoak	211,1	5,9	Garraio-hiria eta Aireportu-hiria
GUZTIRA	3.559,7	100,0	

Agirian lehentasunezko hartutako 90 jarduketei ekingo zaie lehenik, 3.559,7 milioi euroko zenbatekoaz.

Balorazioak:

- **Ez dakar berritasunik**

Nafarroako Gobernuak eta PSNk fase ekonomiko berriari aurre egiteko beharrezko jarduketara gisa aurkeztu dute Nafarroa 2012 plana.

Baina planak, berez, datozen urteetan gauzatu diren obra eta azpiegitura garrantzitsu guztiak aipatu besterik ez du egiten, obra eta azpiegitura horietako asko lehendik aurreikusita, eta horietako batzuk jadanik hasita, egonik ere.

- **Ez dio konpromezurik ezartzen Administrazioari**

Esandakoaz gain, Planak ez dio ezartzen Administrazioari aurrikusitako inbertsioak 2012 baino lehen burututa egoteko konpromezurik. Izan ere, testuak berak dioenez, "Nafarroako Gobernuak bere baliabide guztiak erabiliko ditu Nafarroa 2012 plana garatzeko, eta 2008-2011 aldian gauzatu dituen edo, behintzat, jarriko ditu abian planean aurrikusitako jarduketara guztiak.

Hortaz, Planak bide ematen dio aurrikusitako inbertsioa garaiz ez gauzatzeko aukerari, aurretiazko izapidereen bat hasita egotea nahikoa izango da eta.

- **Planaren jarraipena eta ebaluazioa sinatzaileen esku dago**

Inbertsioen kontrola sinatzaileen esku geratzek, kolokan jartzen du bere eraginkortasuna.

- **Propaganda-ekintza**

Beraz, bai planaren prestaketa, bai beraren aurkezpena propaganda-ekintza hutsak izan dira.

- **Diagnostiko eza**

Planak ez ditu egoera ekonomiko berriaren arazoak aztertzen, ez baitu beronen diagnostikorik egiten.

- **Obra zibileko inbertsioa lehenesten da, gizarte-inbertsioaren kaltetan**

Nafarroa 2012 planean aurrikusitako inbertsio gehienek obra zibila dute xede, gizarte-inbertsioaren pisua erabat hutsala delarik. Zehazki, aurrikusitako inbertsio guztiaren %62,1 Na-

farroako Ubideari, Abiadura Handiko Trenari eta Errepideen Sareari dagokie.

Horrez gain, gizarte-inbertsiora zuzendutako partida urrietako bat –babes ofizialeko 15.000 etxebizitzaren eraikuntza, alegia– dokumentuan azaltzen direnetatik gutxien zehazturikoa da, etxebizitza horiek non eraikiko diren ere ez baita aipatzen.

- **UPNk, PSNk eta CDNk legegintzaldia amaitu arterako sinatutako ituna**

Nafarroa 2012 plana UPNk, CDNk eta PSNk legegintzaldia amaitu arteko aldirako sinatutako ituna da berez. Izan ere, Nafarroako Aurrekontu Orokorrek finantzaketa-iturri gisa aipatzean, ez dira bakarrik 2008ko aurrekontuak –hau da, dagoeneko onartutakoak– azaltzen, 2008-2011 aldi osokoak baizik.

- **Eztabaidarik eza eta gizarte-eragileen bazterketa**

Esandakoari beste egitate bat ere gehitu behar zaio: plana prestatu aurretik, ez da inolako gizarte-eztabaidarik egon, eta kanpoan utzi dira gainerako alderdi politikoak eta sindikatu batzuk, gurea tartean.

- **UGTren eta CCOOren aldekotasuna**

Horrekin batera, bereziki gaitzesgarri deritzogu UGT eta CCOO sindikatuak Planaren alde azaldu izanari. Ikusi dugunez, planaren benetako onuradunak enpresak dira; horra hor, hain zuzen ere, Enpresariaren Konfederazioaren jarreraren arrazoi argia. Baina sindikatu horien aldekotasuna ezin da hain erraz ulertu.

Orain dela gutxi, Iruñeko Udalak bi sindikatu horiei babes ofizialeko 500 etxebizitzaren sustapena adjudikatu die. Horrelako gertakariekin errazago da ulertzea sindikatu hauek Planari eman dioten babesak.

- **Itzalpeko bidesaria eta sozietate publikoak**

Planaren beste alderdi kritikagarri bat aurreikusi diren finantzaketa-iturriak dira. Kontuetako Ganberak berak egin du zalantza, lehenagoko txostenetan, bai itzalpeko bidesariaren formulari, bai Nafarroako Gobernuak sozietate publiko ez egiten duen kudeaketari buruz.



Itzalpeko bidesariari dagokionez, Bideko Autobia finantzatzeko erabili zen formula bera da, eta, Ganberaren esanetan, obraren gainkosta eragin zuen orduan. PSNk, garai hartan, gogor kritikatu zuen itzalpeko bidesaria erabiltzea.

Kontuetako Ganberak –lehenagoko bi txostenetan– zalantzan jarri duen beste finantzaketa-iturria sozietate publikoena da. Iazko txosten batean, enpresa publikoak nahierarako adjudikazioak estaltzeko erabiltzen zituelako kritika egin zion Ganberak Nafarroako Gobernuari, eta azken txostenean, sozietate publikoen kopurua murriztea gomendatu dio. Hala ere, dirudienez, Kontuetako Ganberaren gomendioek ez diete axolarik Planaren sinatzaileei, sozietate publikoak plan osoaren finantzaketa-iturririk garrantzitsuena direla kontuan hartuta.

- **UPNk, PSNk eta CDNk fase ekonomiko berriari aurre egiteko taxututako bidea**

Nafarroa 2012 planak argi uzten du zein den UPNk, PSNk eta CDNk, ekonomiaren hazkunde txikiagoko aldi berriari aurre egiteko, taxutu duten bidea: eraikuntza-enpresei eta higiezin merkatuari mesede egitea, hain zuzen ere, nahiz eta entitate horiek, bankuekin batera, ekonomiaren azken hazkunde-zikloan diru gehien irabazi dutenak izan.

Ondorioztapenak

Honaino esandakoaren ondorioz, ELAK oso balorazio negatiboa egiten du Nafarroa 2012 planaren inguruan, gure iritziz, enpresariei beste inori ez baitio onura ekarriko. Aitzitik, oraingo lehentasuna langileen bizi-baldintzen hobekuntza bermatzeak izan behar duelakoan gaude.

Ikusi dugunez, ekonomiaren hazkunde-aldian zehar, langileriak pisua galdu du aberastasunaren banaketan, enpresariak, aldiz, inoizko mozkinik handienak lortu dituztelarik. Hortaz, fase ekonomiko berriari aurre egiteko bidea ezin da politika neoliberal gehiago ezartzea, aberastasunaren banaketa bidezkoagoa bermatzeko estrategia berriei benaz ekitea baizik.

2

Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiek ekonomia suspertzeko sinatu duten hitzarmenari buruz ELAK egindako balorazioa (2008ko uztaila)

Joan den ekainaren 20an, Lehendakariak eta Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako Diputatu Nagusiek, Eusko Jaurlaritzaren eta EAeko Foru Aldundien ordezkari legez, hurrenez hurren, ekonomiaren eta enpleguaren sustapenerako inbertsio publikoa dinamizatzeke instituzio arteko akordioa sinatu zuten.

Lehendik aurreikusitakoaren bilduma

Akordioa zalaparta handiz iragarri badute ere, bertan jasotako neurrietako asko lehendik zeuden erabakita, testuan bertan aitortzen denez: *"Proiektu hauetako batzuk dagoeneko abiarazita eta aurrekontuetan jasota daudela eta, euren egikaritzea aurreratu egingo da. Beste batzuk, ordea, ekonomiaren oraingo egoerari buru egin behar diren ondorioz sortutako proiektu berriak dira."* Hitzarmenak, beraz, lehendik **aurreikusita zeuden jarduketak bildu** baino ez du egiten, **funtsean**.

Proiektuen eta aurrekontuaren zehaztasunik eza

Hitzartutako testuan, proiektu orokorretarako aurrekontu-zuzkidura generikoak aipatzen dira (hainbat motatako azpiegiturei dagozkien, hala nola errepide, enpresa-zentro eta abarri), baina

ez dira zehazten, ez garatu nahi diren proiektuak, ez proiektu horiei esleitutako aurrekontu-partidak. Akordioak berak islatzen du zehazgabetasun hori: *"Ildo horretan, Akordioaren Eranskinak proiektu-sail handiak jasotzen ditu, gutxi gorabeherako burutzapen-epeak eta guzti. Akordioa sinatu duten Instituzioek egitasmo horiek unean uneko eta lurraldekako inbertsio publikoko programa eran zehazteko konpromisoa hartu dute, beraiek gauzatu, kudeatu eta jarraipen xehatua egiteari begira"*.

Hortaz, Aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak programa zehaztu arte, ez dago egitan gauzatuko diren jarduketan berri izaterik, ez eta horien balorazioa egiterik ere. Horixe gertatu da Guggenheim museoaren Urdaibaiko zabalkuntzarekin", proiektu hori instituzio arteko hitzarmena sinatu eta argitara eman ondoren ezagutu baitugu, Bizkaiko Ahaldu Nagusiaren adierazpenen bidez. Proiektu horren inguruan azaldu diren zalantzek eta hausnarketek iradokitzen dutenaren arabera, jorratzen ari garen gaiari dagokionez, instituzio arteko hitzarmena tupustean eta benazko zehazpenik gabe egin da.

Horrez gain, akordioak berak aitortzen du **gastu-aurreikuspenak** direla, eta, beraz, gerta litekeela ez betetzea: *"Instituzio bakoitzak finkatuko ditu proiektuen aurrekontu-egitaraua eta epe zehatzak, Hitzarmenaren eranskin gisa jasotako tauletan bildu diren aurreikuspenei jarraituz"*.

Urteko esleipenak ez dira zehaztu

Instituzio bakoitzaren urteko esleipenak Hitzarmenaren zehaztuta ez egoteari azpimarragarri deritzogu. Hitzartutako agirian, bere denborasparru osorako aurreikusitako diru-kopuruak baino ez dira ageri, ez Eusko Jaurlaritzaren, ez Aldundi bakoitzaren kasuan. Izan ere, gai bakoitzari buruz, zuzkidurak 2008tik 2012ra artekoak izango direla aipatzen da (beste xehetasunik gabe), kasu gehienetan, eta ekintza batzuen epea, gainera, 2014, 2015 edo 2016ra arte luzatzen da.

Deigarria da, halaber, Eusko Jaurlaritzak, bere legegintzaldiaren amaieran egon arren, 2012ra arteko indarraldia duten hitzarmenak sinatzea.

Ekimen publikoaren eta pribatuaren arteko nahastea

Beste alde batetik, instituzio arteko hitzarmenak ez du bere jarduera ekimen publikora mugatzen, ekimen pribatura ere hedatzen da eta: *"Ahalegin publikoak batu eta koordinatu ez ezik, **ekimen pribatuaren parte-hartzearen beharra** ere izango da; horretarako, aurrekontuaz beste finantzaketa-formula osagarri batzuk prestatuko dira, zenbait proiekturi ekin ahal izateko"*.


Askotan, instituzioen egitasmoak jendaurrean aurkezten direnean, administrazioen baliabideak eta enpresa pribatuaren gastu-aurreikuspenak batuta azaltzen dira zifretan. Horixe aurkitu dugu instituzio arteko hitzarmen honetan ere. Horregatik, hain zuzen ere, argitaratutako aurrekontu-zifrak sektore publikoari ala pribatuari dagozkion jakiterik ere ez dago.

Aztertzen ari garen hitzarmenaren inguruan, nabarmena da instituzioek **enpresa-taldeekiko** agertu duten bateratasuna. Ildo horretan, Bizkaiko Foru Aldundiak ingeniari-entreprenari, finantza-erakundeei eta eraikuntza sektoreari deitzeko asmoa zuela adierazi zuen, proiektua zehatz-mehatz azaltzekotan. Gipuzkoako Aldundiak "Gipuzkoa aurrera" Foroa sortu du, Adegirekin, MCC taldeko kooperatibekin, Kutxarekin eta Merkataritza Ganberarekin batera, instituzio horrek enpresaburuen klasearekiko duen menpetasuna agerian utziz. Instituzioek enpresarien negozioen interesen zerbitzuan dihardutela frogatzen dute irudiok.

Gizarte-eskubideak bazterrean uzten ditu

Edukiei gagozkielarik, akordioak 12.805,6 milioi euroko instituzio arteko gastua aurreikusten du. Diru-kopuru horren %7,5 Arabako Foru Aldundiak ipiniko du, %34,9 Bizkaikoak, %11,7 Gipuzkoakoak eta %45,8 Eusko Jaurlaritzak.

Aurrekontuaren %47,3 Komunikazio eta Telekomunikazioetarako Azpiegituretara doa, eta %34,5, **bide-azpiegituretara**. Are bitxiagoa da Diputazio bakoitzak jarduera-sail horretara bideratuko duen portzentajea: Arabakoak %33,8, Bizkaikoak %66,4 eta Gipuzkoakoak %74,7. Aurrekontuaren gainerakotik, zati handi bat (hidraulika, ingurumen eta kultura arloeta-



ko jarduketatzat jo diren asko, adibidez) azpiegitura gehiago besterik ez dira.

Bide-jarduketei dagokienez, hausnarketa sakona egin behar da, ingurumen-inpaktu handia eta eragin onuragarri murrizak izan ditzakete eta. Errepide berrien eraikuntzak, esaterako, ibilgailu pribatua maizago erabiltzeko dei-efektua sortzen du denboraz, esperientziak erakusten duenez, eta ondorioz, errepide berrietan ere gero eta ohikoago suertatzen dira autoiladak.

Aurrekontuaren barruan, alde itzela dago bide-azpiegiturarako jasotako partida handien eta **osasun, hezkuntza eta gizarte arloei begira eta lurraldearen orekarako aurreikusitako azpiegituren** multzora, guztira, bideratzeko asmoa duten %28,9 urriaren artean (%4,3 osasun-azpiegiturera, %6,6 hezkuntza arlokoetara, %2,8 gizarte-zerbitzuetara, %14 etxebizitza publikora, eta %1,2 lurralde-orekara).

"Gizarte-proiektuetara" zuzenduko bide diren zenbaterako gehienek etxebizitzarekin dute zerikusia. Etxebizitzaren inguruko datuek erakusten dutenez, bertan jasotako kopuruak enpresa pribatuen inbertsioei dagozkie. Beraz, etxebizitzarako eta gizarte-gastuaren atal guztietarako aurreikusi den benetako gastu publikoa aipatutako %28,9ko portzentajea baino askoz txikiagoa da.

Finean, azpiegiturak garatzeko hitzarmena da, eta **bazterrean uzten ditu gizarte-eskubideak eta gizarte-gastua.**

JARDUERA-ARDATZA	MILIOI €	%
KOMUNIKAZIOAK ETA TELEKOMUNIKAZ.	6.063,3	47,3
EKONOMIA, TEKNOLOGIA ETA ENERGIA	782,7	6,1
OSASUNA, HEZKUNTZA, GIZARTEA ETA LURRALDE-OREKA	3.706,8	28,9
KULTURA, KIROLA ETA AISIA	442,2	3,5
HIDRAULIKA ETA INGURUMENA	1.499,2	11,7
EKONOMIAREN SUSTAPENA	311,5	2,4
GUZTIRA	12.805,6	100

Aurrekontu-politika antisozialaren ondorioz bildutako baliabide publikoak

Hitzarmenaren finantzaketa aurreko urteetan eurek egin duten kudeaketa onari esker gauza-

tu ahalko dela sinestarazi nahi digute EAEko instituzioek. Beraien ordezkarien esanetan, instituzioek garatutako aurrekontu-politikak ahalbidetu du egitasmo horiek datozen urteetan zehar gauzatzeko besteko baliabideak izatea.

Errealitatea oso bestelakoa da, ordea. EAEko instituzioen aurrekontu-politikak kutsu kontserbadore eta antisozial nabaria izan du. Era horretan, gizarte-gastu urri-urria, errenta handien eta kapital-errenten mesederako zerga-kudeaketa, eta gizarte-premiak ase ordez hobetsi duten superabit jarraitua eta hazkorra izan dira politika horren berezitasunak. Biztanleen gizarte-premiak (osasuna, hezkuntza, etxebizitza, gizarte-zerbitzuak, oinarrizko errenta,...) izan dira, berriz, azken urteetako aurrekontu-politikaren galtzaile handiak. Oraingo honetan, azpiegitura gehiago eraikitzeko erabili nahi dituzte superabitak, gizarte-gastua handitu beharrean. Ondorioz, aurrean dugun hori norabide okerrean ematen den beste urrats bat dela esan daiteke.

Propaganda, akordioaren ardatza

Ezer zehazten ez duen akordio hori nola aurkeztu den ikusita, argi dago euskal instituzioek propaganda lehenesten dutela, ekintzaren gainetik.

Hitzarmenaren edukiak ere norabide horretan garamatza. Beraren bigarren helburu orokorra honako hau da: "*Euskal Instituzioen jardunaren irudi bateratua eta koordinatua agertzeta...*". Ez da hori irudiari buruz egiten den aipu bakarra. Gainera, hainbatetan aipatzen diren "komunikazio-ekintzak" ere sail berean sar litezke, publizitatearen ikuspuntutik baino ezin uler daitezke eta.

Horren arabera, akordioaren helburu nagusietako bat **propaganda** dela pentsa dezakegu.

Ez eztabaida-prozesurik, ez gizarte-kontsultarik egin gabe

ELAk ohartarazi nahi du plan hau erabaki aurretik ez dela ez eztabaida-prozesurik, ez gizarte-kontsultarik egin. Horrek argi erakusten du zer eginkizun esleitzen dioten gure gobernariak gizarte antolatuari: bat ere ez.

Aurrean dugun plan horrek datozen urteetako jarduera instituzionalaren ildo nagusiak ezarri-

ko ditu, ustez. Horregatik, beraren gaineko kontsulta-prozesu formalik ere egin ez izana oso larria da. Berez, ELAK EGKtik irtetea erabaki zuenean esandakoa berretsi baino ez du egiten; hau da: EAEko instituzioek ez dutela euren politiken gaineko kontsultarik egin nahi, eta ugazaberia oso eroso dagoela oraingo egoeran (hitzarmenaren harian ere ikusten denez).

ONDORIOZTAPENAK

Ekonomia bizkortzeko instituzio arteko hitzarmenaren helburua, teoriar, hazkunde ekonomiko txikiagoko aldi honi erantzutea da. ELAren ustez, aitzitik, hori ez da egia:

- Lehendik aurreikusita egon arren oraindik zehaztu ere egin ez diren jarduketa batzuk 4 urteko epean burutzeko asmoa dute (eta zenbaitetarako, 8 urte arteko epea ezarri dute). Beraz, ekintza horiek eragin hutsala izango dute, epe laburrera, ekonomiaren egoeran.
- EAEko instituzioek hartu beharko lituzketen neurririk beharrezkoenak gizarte-eskubideak aintzat hartzea (osasun, hezkuntza eta etxebizitza arloetakoak, gizarte-zerbitzuekin loturikoak, pobrezia kontrako politikak, eta abar) eta gizarte-gastura askoz diru gehiago bideratzea lirateke. Hitzartutako planean ez da horrelakorik jasotzen.


2

Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundien Superabita 2007an

2008ko lehenengo hilabeteetan gizarte-ereduari buruz egin genuen kanpainan, EAEko instituzioen politika atzerakoia zela salatu genuen. Orduan azaldu genituen frogetako bat urtealdiak superabitez ixtea zen.

Orain, 2007ko datuak jakin berri ditugu. Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiek, iaz, 1.396 milioi euroko superabita izan zuten (antzinako 232.275 milioi pezeta, alegia). Kopuru hori instituziook 2006an izan zuten superabita baino %20,8 handiagoa da.

EUSKO JAURLARITZAREN ETA FORU ALDUNDIEN SUPERABITA. 2000-2007




Iturria: Eusko Jaurlaritza


Grafikoan ikus daitekeenez, oraingo hamarkadako ekitaldi guzti-guztietan egon da superabita. Are gehiago: azken urteetan, oso hazkunde handia izan du superabit horrek.

Horrek esan nahi du Eusko Jaurlaritzak eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Aldundiek sistemaz lehenesten dutela superabita lortzea, gizarte-gasturako zuzkidurak handitu beharrean. Hau da: gizarteko premiak ase ordez, zor publikoa kitatu eta finantza-kontuetan dirutzak izan nahiago dute.

Aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren superabita harrigarria bezain eskandaluzkoa da. 2007an, BPGaren %2,1ekoa izan zen; hots, EAEn sortzen den aberastasunaren %2,1 bestekoa. Grafikoak argi erakusten du azken urteetako superabitak markak hautsi egin dituela.




EUSKO JAURLARITZAREN ETA FORU ALDUNDIEN SUPERABITA. (BPG %). 2000-2007



Iturria: Eusko Jaurlaritza, Eustat

Zifra horiek ez datoz bat Europar Batasunean gertatzen denarekin. 2007an, Europar Batasuneko defizit publikoa BPGaren %1ekoa izan da, EAEn, esan dugunez, BPGaren %2,1eko superabita egon delarik.


AURREKONTU EMAITZA. (BPG %). EAE ETA 27-EB. 2007



Iturria: Eusko Jaurlaritza, Eustat, Eurostat

Bere aldetik, Espainiako Bankuaren arabera, EAeko zor publikoa BPGaren %1,4koa bakarrik da. Zifra hau ere oso ezberdina da Europar Batasunean dagoen batez-beste zor publiko-arekiko (BPGaren %58,7).

ZOR PUBLIKOA. EAE, EUROPAR BATASUNA. 2007. (BPG%)



Iturria: Eurostat, Espainiako Bankua


Argi dago, beraz, benetako politika aurrekontuak superabitez ixtean datza, uneko inguruabarrak honako hauek badira ere.

Gizarte-babeseko gastuak Europar Batasuneko txikienetakoak dira

EAEn, ongizateko estatuaren garapena Europar Batasuneko eskasenetakoa da. Zehazki, EAEn BPGaren %18,9 bideratzen da gizarte-babesera, Europar Batasunean xede horretara, batez beste, %27,6 zuzentzen delarik. Hau da: urtean 5.000 milioi euro gehiago gastatu beharko liriteke gizarte-babesean, Europako batez bestekora heltzeko.

Defizitak gizarte-babesaren arlo guztiak jotzen ditu (zahartzarora, osasun-laguntza, elbarritasuna, familia, langabezia, bizirik irautea eta etxebizitza), honako grafiko honek frogatzen duenez.

GIZARTE PRESTAZIOAK, FUNTZIOEN ARABERA. 2004. (BPG %)



Iturria: Eustat, Eurostat

Superabita izan beharrean, EBko batez besteko aurrekontu-defizita izanez gero, gizarte-babeseko diferentzialaren herena zuzendu liteke. EAEko gizarte-babeseko gastuaren eta EBko batez bestekoaren artean dagoen diferentziala BPGaren 8,7 puntukoa da. Aitzitik, jauzia 3,1 puntu txikiagoa litzateke (hau da, %35,6 txikiagoa edo, bestela esanda, 2.060 milioi euro gutxiagokoa) Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiek, 2007an izan zuten superabitaren ordez, Europar Batasuneko batez besteko defizita izan balute.

Erreforma fiskalen ondorioz zerga-bilketan jazotzen den galera

Hona hemen euskal instituzioen zerga-politikaren berezitasunak:

- Presio fiskal urria: EAEko presio fiskala BPGaren %32,6koa da, alegia, Europar Batasuneko batez besteko %39,7a baino 7,1 puntu txikiagoa. Europar Batasuneko azkeneak gara, presio fiskalari dagokionez.
- PFEZn eta Sozietateen gaineko Zergan egindako erreforma sarriek, nabarmenki murrizten dute diru-bilketa: PFEZn eta Sozietateen gaineko Zergan egindako azken erreformak, berak bakarrik, 430 milioi eurotik gorako galera eragiten du urteko bilketan. Dirutza horien zati handiena errenta handietara, enpresetara eta kapital-errentetara doa.

Superabitaren erabilera zergak murrizten joateko

Superabitaren politikak etorkizunean zerga-murrizketa gehiago egiteko estaldura ematen du. Ildo horretan, koherentzia handia dago gizarte-babesari pisu eskasa esleitzen dion gastu-politikaren eta kapitalari mesede egiten dion zerga-politikaren artean. Bistan dagoenez, bi politika horiek elkarren osagarri dira, galtzailak, beti, biztanleria, langileria eta txartoen bizi diren gizarte-kolektiboak direlarik.